Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felipa Urkia Elorza

Oñati, Gipuzkoa
(1922-2021)



Aurkibidea

Biografia



1922an jaio zen Ugaztegi auzoko Erdikoetxe baserrian (Ugaztegi auzunea elizaz Araotz auzoari dagokio, baina udalez Aretxabaletari). Aita zuen bertakoa, eta ama, berriz, Aretxabaletako Goroeta auzoko Errekabitarte baserrikoa. Hamaika seme-alaba izan zituzten. Felipak bi urte zituela Ugaztegiko Bekoetxera pasatu ziren. Goroetako eskolan hilabete egin ondoren, Oñatiko Uribarri auzoko eskolara joan zen beste lau urtean, Don Felipe maisuarekin. Neskametzan jardun zuen Donostian urtebetez eta Oñatin (Usakon eta Jaumendin) beste hiru urtean. Ezkondu eta gero, Patrizio Etxeberriaren Burgoseko lursailean (finkan) egin zuen lan lau urtean, bertako langileen ostatua kudeatzen. Uribarriko Aingeru baserriko Santiago Galdosekin ezkondu zen; bi seme izan zituzten. Bertsoak idazteko zaletasuna du.

Zintak

ONA-107

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-09-09
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

ONA-108

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-09-09
- **Iraupena**: 23 min
- **Euskarria**: MiniDV

ONA-112

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2010-01-29
- **Iraupena**: 126 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Udaberriko lorea

- **Erref**: ONA-107/001
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertso batekin egin du bere aurkezpena, eta baita bizimodua nolakoa zen azaldu ere.

2. Jaio eta berehala bataioa

- **Erref**: ONA-107/003
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:01:11. **Bukatu**: 00:02:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Ugaztegin jaio zen, Erdikoetxean. Jaioteguna. Bataio eguna ospatu du beti, nahiz eta aurreko egunean jaio. Azkar bataiatzen zuten lehen, umea hiltzen bazen linbora ez joateko.

3. Aita, bertsolari

- **Erref**: ONA-107/005
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:03:35. **Bukatu**: 00:04:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
11 urte zeuzkala hil zitzaion aita bere aitari; amona alargun geratu zen bost umerekin. Eskolara egun batean bakarrik joan zen aita. Aita oso famatua zen, bertsotan egiten zuen, ezkontzetan-eta. Gaita ere bazuen. Fermin Urkia.

4. Aitapuntakoaren pasadizoa

- **Erref**: ONA-107/008
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:05:28. **Bukatu**: 00:06:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Aitak kontatzen zuen pasadizoa: ezkontza batean aitaponteko zela, neska polita eta gizona itsusia zirela, eta apaizak pentsatu zuela aitapontekoa bera zela ezkongaia.

5. Etxea nolakoa zen

- **Erref**: ONA-107/010
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:06:12. **Bukatu**: 00:08:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Beheko etxera joan ziren bizitzera, etxe hobea zen hura. Besteak tximiniarik ere ez zeukan; lau ate zituen sukaldeak. Bat ganbarara, bestea ukuilu ertzera... Gelak nolakoak ziren.

6. Ugaztegiko familiak

- **Erref**: ONA-107/012
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:08:36. **Bukatu**: 00:09:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Ugazabak ziren erdiko etxean, eta behekoa erosi zuten gero. Ugaztegin bost familia bizi ziren. Aretxabaletakoa zen, Goronaetakoa. Uribarrira joan zen aitarekin, 9 urterekin.

7. Milizianoak baserrietan

- **Erref**: ONA-107/015
- **Iraupena**: 0:04:34. **Hasi**: 00:23:49. **Bukatu**: 00:28:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Kafea falta zen etxean, eta aita bila joan zen; mahuketan sartuta ekarri zuen milizianoek emandako kafea. Aita eta anaia kobara joan ziren lotara, milizianoen beldurrez. Baserrian egon ziren mordo bat. Gizon bat nola hil zuten. Bost mutilek beraien buruak entregatu zituzten, gosetuta. Uribarriko gazte asko hil ziren. Araotzen bakarra hil zen.

8. Ugaztegiri buruzko bertsoak I

- **Erref**: ONA-112/002
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:00:59. **Bukatu**: 00:01:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Bere jaiotetxeari, Ugaztegi baserriari buruzko bertsoak.

9. Ugaztegiri buruzko bertsoak II

- **Erref**: ONA-112/004
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:02:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Ugaztegiri buruzko bertsoak.

10. Goroetako eskolan, maisua gogorra

- **Erref**: ONA-112/006
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:02:38. **Bukatu**: 00:05:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Goroetako eskolan ibili zen, Don Jenarorekin, baina oso denbora gutxian. Oso gogorra zen. Makilarekin jotzen zituen mutikoak. Anaia bat jo zuen, eta Ugaztegira joan zenean, aitak zer esan zion. Amandreak konpondu zuen giro txarra.

11. Etxaluze eta Bekoetxea nolakoak ziren

- **Erref**: ONA-112/008
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:05:17. **Bukatu**: 00:09:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Etxean zeintzuk bizi ziren. 11 senide ziren. Amandrea. Neskamerik ez zuten. Etxaluzen jaio zen, eta hiru urte zituenean joan ziren Bekoetxera. Tximinia gabeko etxea zen. Sukaldeak lau ate zituen, eta sua sukalde erdian. Beste etxea nolakoa zen.

12. Ugaztegiko giroa

- **Erref**: ONA-112/010
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:11:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Sei bat behi eta txahalak zituzten, eta ardiak. Bi etxetako lurrak zituen aitak. Mutilak gerrara joan ziren, eta lan asko baserrian. Ugaztegiko etxeak zeintzuk ziren; harreman ona zuten. Botoa nola aldatzen zuten, aho batez erabakita. Amandrea, karlista.

13. Aita ez zen ikasia, baina argia bai

- **Erref**: ONA-112/012
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:11:14. **Bukatu**: 00:12:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Aita eskolara egun bakar batean joan zen; ama alargun geratu zen, berak 11 urte zituenean. Bertsolaria zen aita, eta gaita jotzen zuen. Eztei errondetan ibiltzen zen. Bi eguneko ezteiak.

14. Estraperlorako, erdara

- **Erref**: ONA-112/014
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:13:16. **Bukatu**: 00:14:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Aitak ez zekien irakurtzen, ez idazten. Erdaraz ere ez, baina ulertu bai. Arabara joaten zen, estraperlora, beste bat itzultzaile lanetan jarrita, baina hura ere antzeko zebilen.

15. Uribarriko eskolan; neskame Barrenekora

- **Erref**: ONA-112/016
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:15:05. **Bukatu**: 00:18:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Goroetako eskolatik (Aretxabaleta) Uribarrira (Oñati) joan zen; Barrenekora joan zen bizitzera, baserriko lanak egiteko. Arropak zapi batean bilduta. Lehengo lapikoak. Babarrunak denek batetik jaten zituzten, koilarekin. Aste denerako egiten zuten kafea. Aita eta ama deitzeko esan zioten. Itaurrean. Baserriko lanak.

16. Uribarriko maisua, euskaltzalea

- **Erref**: ONA-112/018
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:19:04. **Bukatu**: 00:19:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Uribarriko maisua, Felipe Jausoro; abertzalea zen. Euskaraz idazten eta irakurtzen erakusten saiatu zen. Batuketak egiten ere ez zuen ikasi. Neguan bakarrik joaten zen eskolara.

17. Baserri giroko anekdotak

- **Erref**: ONA-112/020
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:20:07. **Bukatu**: 00:22:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Barrenekoan bazituzten idiak. Behiak kaskarrak ziren. Goldea. Tanteluko Txominen kontuak: behiak ekartzera joan zen batean, bide izkinan agertu zitzaion. Askan arropa garbitzen ari zela esan ziotena. Anekdotak.

18. Barrenekoan argia bai, urik ez

- **Erref**: ONA-112/022
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:22:54. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Barrenekoan urik ez zegoen, argia bai. Irratirik ez. Baserritarren ezjakintasuna aipatzen du, ez zekitela behar besteko etekina ateratzen.

19. Goiz oheratzen ziren

- **Erref**: ONA-112/024
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:23:56. **Bukatu**: 00:25:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Negurako belarra batzen zuten, Barrenekoan. Ugaztegiko kontuak. Argia nondik zetorren; ipurtargia. Goiz oheratzen ziren. Gosetuta jaikitzen ziren.

20. Gerra hasiera; anaietako bi soldadu

- **Erref**: ONA-112/026
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:25:40. **Bukatu**: 00:27:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
14 urte bete aurretik bueltatu zen etxera, eta gerra hasi zen. Biharamunean, milizianoak etxean zituzten. Gasteizko lehen bonbak entzun zituzten. Bi anaia zituen gerrarako adinean; Francok biak eraman zituen. Bat Elizondon egon zen, zaldiak zaintzen, eta bestea kanoiekin, Gatzaga inguruak.

21. Milizianoek Ugaztegin gosaltzen zuten

- **Erref**: ONA-112/027
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:27:57. **Bukatu**: 00:29:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Milizianoek Ugastegin gosaltzen zuten, eta Arabamendira joaten ziren. Aretxabaletara jaisten ziren. Ugastegiko txabolan egiten zuten lo. Araozko mutilak batu zitzaizkien gero. Txorimaloak jarri zizkieten behin, erreketez jantzita.

22. Gerrako kontuak: beldurrez, aitzakia bila

- **Erref**: ONA-112/029
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:29:58. **Bukatu**: 00:31:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Bi mutil joan zitzaizkien etxera behin, behi bat galdu zutela esanez. Beldurra zuten egia esateko. Goseak zeuden. Milizianoengana entregatu ziren.

23. Nazionalak geldi, eta milizianoak gogortu; Intxorta sutan

- **Erref**: ONA-112/031
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:31:18. **Bukatu**: 00:33:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Milizianoak Ugaztegin. Aretxabaleta hartu ostean, frontea non geratu zen. Nazionalak geldi egon ziren, eta bitartean milizianoak gogortu egin ziren; kosta egin zitzaien garaitzea. Osaba batek esaten zuena. Intxorta sutan utzi zuten.

24. Hegazkina nola erori zen

- **Erref**: ONA-112/033
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:33:21. **Bukatu**: 00:35:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gurutzebarrin zeuden, soldaduek aurrera nola egiten zuten ikusten. Hegazkinak Gasteizen kargatu eta bueltan joaten ziren. Hegazkin bat lurrera erori zen, Gatzaga aldean. Batzuk ikustera joan ziren, eta bere anaiarekin egin zuten topo han.

25. Gerran hildakoak eta zaurituak, Araotzen eta Uribarrin

- **Erref**: ONA-112/035
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:35:45. **Bukatu**: 00:39:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Bi anaiak eraman zituzten soldadu. Batek zortea izan zuen, baina besteak ez: tifusa ere harrapatu zuen. Ez du ulertzen Errepublikako gobernuak zergatik ez zuen soldadurik hartu; gero Francok bai, kinta mordoa. Araotzen boluntario gutxi, eta bakarra hil zen gerran. Zaurituak. Uribarrin, berriz, pila bat hil ziren; batzuk aipatzen ditu.

26. Frontea Murun

- **Erref**: ONA-112/037
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:40:28. **Bukatu**: 00:41:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Murun geratu zen frontea, Aretxabaletan. Ahizpak tiroak entzun zituen han. Oñati hartu egin zuten.

27. Milizianoak Ugaztegin: harremana

- **Erref**: ONA-112/038
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:41:22. **Bukatu**: 00:44:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Ugaztegin egon ziren milizianoak nongoak ziren; errepublikanoak ziren, erdaldunak. Gero euskaldunak batu zitzaizkien, boluntarioak. Armatuta zeuden. Milizianoekin izan zuten harremana ona izan zen.

28. Aretxabaletara Oñatira baino gehiago

- **Erref**: ONA-112/040
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:44:44. **Bukatu**: 00:46:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Hamabostean behin jaisten ziren herrira; Aretxabaletara joaten ziren Oñatira baino gehiago. Merkeagoa ote zen. Saltzera ere Aretxabaletara: gazta, arrautzak... Mezetara, Araotzera. Goroetara ordubete, eta Araotzeko elizara ordu erdi.

29. Apaiza Arabara pasatzeko komeriak

- **Erref**: ONA-112/041
- **Iraupena**: 0:05:31. **Hasi**: 00:46:27. **Bukatu**: 00:51:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Goroetako apaizaren kontuak. Milizianoak han zeudela, Arabara pasatzea bururatu zitzaion, Francoren aldera. Ugaztegira joan zen laguntza bila. Anaiak lagun milizianoak zituen. Ikusi egin zuten apaiza, eta milizianoak atzetik. Tiroketa. Apaiza zulotik nola atera zuten.

30. Apaizaren bertsoak, sabela betetzeko

- **Erref**: ONA-112/043
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:52:01. **Bukatu**: 00:53:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Ugaztegira joaten zenean, apaizak kantatzen zuen bertsoa. Ikaragarrizko jatuna ei zen. Txerri-hiltzeak bezainbesteko beldurra ematen zion berari apaiz hark. Apaizak eman zion sustoa.

31. Apaizaren jan beharra

- **Erref**: ONA-112/045
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:53:47. **Bukatu**: 00:55:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Apaizaren jan beharra. Txerri-saiheskia eta patata erreak, buskantzak... Anekdota. Berakatz-zopa jarri zion behin aldekoak, Damianak.

32. Aretxabaletako medikua eta Oñatikoa

- **Erref**: ONA-112/047
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:55:46. **Bukatu**: 00:58:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Apaizei berorika hitz egiten zieten. Aita gaixorik zegoen batean, Joxe Mari Galartza medikua joan zen. Aretxabaletakoak ez zuen nahi izaten, urruti zegoelako. Anekdota. Astoarekin jasotzen zuten medikua Araotzen. Anekdota.

33. Umea hegazkinean Ugaztegira

- **Erref**: ONA-112/049
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:58:39. **Bukatu**: 01:02:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Araozko andre batek egiten zituen emagin lanak. Komadrona. Mezetatik bueltan, anai-arreba bizkiek zer esan zieten: "Hi, aldekuan umia ekarri jone!"; hegazkinean ekarri zutela uste zuten. Pedrotxo anaiaren irteerak: San Antoniori esan ziona.

34. "Batiuak" eta anisa

- **Erref**: ONA-112/051
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 01:03:24. **Bukatu**: 01:05:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:
Ume jaioberria bisitatzea: "batiuak" (atsolorrak edo martopilak). Aitona batek berak egindako anisa eraman zuen, eta andre denak mozkortu. Ezkontzak lotzen ere famatua zen gizona: ardi baten truke topatzen zuen bikotea.

35. "Batiuak" eta bataioak

- **Erref**: ONA-112/053
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 01:05:10. **Bukatu**: 01:06:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
"Batiuetara" andreak bakarrik joaten ziren. Goroetan izaten ziren bataioak, Jaunartzeak...

36. Eztei-errondak eta anekdota

- **Erref**: ONA-112/055
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 01:06:28. **Bukatu**: 01:07:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Eztei-errondetara joaten zen aita. Giputxeko alaba oso ederra ei zen, inude egondakoa, baina senarra itsusia. Aitaponteko moduan zegoen aita, baina apaizak pentsatu zuen ezkongaia zela.

37. Neskame Donostian; oilo itsuei buruzko bertsoak

- **Erref**: ONA-112/058
- **Iraupena**: 0:05:13. **Hasi**: 01:09:44. **Bukatu**: 01:14:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Gerra ostean Donostiara joan zen neskame. 1940an. Etxe dotorea zen, baina gaizki egon zen han eta utzi egin zuen. Gero bi neskame hartu zituzten, eta haien lagun egin zen. Bi oilo zahar zituzten patioan, eta haiek nola hil zituzten; bertsoak, berak asmatuak.

38. Neskame, gose garaian

- **Erref**: ONA-112/060
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 01:15:11. **Bukatu**: 01:17:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Beste etxe batean hasi zen lanean gero, eta han oso ondo. Baina gerraostea zen, eta miseria zegoen. Taxilaria zen gizona. Emaztearekin haserretu, eta errazionamenduko kartilako hautsi zuen senarrak. Hura nola konpondu zuten.

39. Donostian, zomorroak etxean

- **Erref**: ONA-112/063
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 01:18:54. **Bukatu**: 01:20:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Neskame zegoela gertatu zitzaiona: zimitzak eta labezomorroak zeuden etxeetan. Lehen egunean, goitik behera jan zuten. Erre egin zituzten zomorroak.

40. Etxean dirurik ez zuen entregatzen, ezta jaso ere

- **Erref**: ONA-112/064
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:20:31. **Bukatu**: 01:21:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Neskame moduan 10 duro irabazten zituen. Ez zuen etxera dirurik bidaltzen, jaso ere ez; baserrian ez zegoelako. Behi baten dirua eman zien aitak bi ahizpei, erdibana egiteko.

41. Donostian, Txomineneara dantzara

- **Erref**: ONA-112/065
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 01:21:42. **Bukatu**: 01:23:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Hamabi urteko ahizpa hil zenean bueltatu zen Donostiatik, eta ez zen berriz joan. Donostian zegoela, Txomineneara joaten zen dantzara, igandetan. Bederatzietarako etxean egon behar zuen.

42. Urtiagaingo erromeriak eta orduko giroa

- **Erref**: ONA-112/067
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 01:23:55. **Bukatu**: 01:26:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Urtiagaingo erromeriak, igandero. Senarrak soinua jotzen zuen, baina ezkontzean utzi egin zuen. Orduko giroa. Gaur egungo bizimoduari buruzko iritzia. Gaizki iruditzen zaio umeei dena libre uztea.

43. Usakon neskame zegoela bota zuen bertsoa

- **Erref**: ONA-112/071
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 01:28:15. **Bukatu**: 01:31:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Usakon egon zen neskame, urtebete inguru. Orduan ere joaten zen jendea bainatzera. Ezkailu-jana egiten zuten auzoko gizonek. Bertsorik botatzen ez zuenak ardoa ordaindu behar zutela erabaki zuten; berak gizon baten ordez bota zuen, eta bost pezeta eman zizkion. Bertsoa kantatzen du.

44. Arantzazura, ehunezko soinekoekin

- **Erref**: ONA-112/074
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 01:32:28. **Bukatu**: 01:36:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Puxeta (lixiba) hamabostean behin egiten zen. Lihozko ehuna. Amandreak kontatzen zuena: liho jotzera joaten zen Goroetara. Gerra denboran, telarik ez zegoen eta amak ehuna eman zien soinekoak egiteko. Alpargatak, galtzerdi zuriekin. Gerran zaurituak, Arantzazun. Olabarrietako bi mutilek lagundu zieten etxera.

45. Puxeta egiteko modua

- **Erref**: ONA-112/076
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 01:36:17. **Bukatu**: 01:37:41

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Ugaztegin alberka zuten, arropa garbitzeko. Tina batean jartzen zituzten arropak, sutarako hautsarekin. Ur irakina. Aitaren txistea.

46. Barrenekoan gozo tratatu zuten

- **Erref**: ONA-112/077
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:37:41. **Bukatu**: 01:38:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Beti gozo tratatu zuten Barrenekoan; etxeko mutilzaharra beti berarekin jolasean zebilen, beti zirikatzen.

47. Burgosen, Patricio Etxeberriarentzat lanean

- **Erref**: ONA-112/080
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 01:40:55. **Bukatu**: 01:44:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Boom industriala
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Lau urte egin zituzten Burgosen, Patricio Etxeberriarentzat lanean. Sukaldeko lanak, etxeko jira eta arropa zegoen bere kargu, 20-30 gizonena. Etxeak egiten ari ziren han. Langileen pabilioiak. Semea izateko Oñatira joan zen. Baldintza txarrak, Burgosen.

48. Burgosko kontuak

- **Erref**: ONA-112/082
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 01:45:10. **Bukatu**: 01:48:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Burgosera trenean joan ziren. Oñatin ere trena zegoen orduan. Gabonetan, etxera joateko zeudela, txoferrak mozkortu egin ziren. Batek kolpea hartu zuen kopetan. Ohera eraman ezin.

49. Gerrari buruzko bertsoak

- **Erref**: ONA-112/087
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 01:52:16. **Bukatu**: 01:53:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Berak asmatutako bertsoak irakurtzen ditu. Gerrari buruzkoak.

50. Ama kantuzalearen bertsoak

- **Erref**: ONA-112/089
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 01:53:49. **Bukatu**: 01:56:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Berak asmatutako bertsoak: semeek ama sendagilearena eramaten dute, amak kantu gehiegi egiten duelako.

51. Gerrari buruzko bertsoak II

- **Erref**: ONA-112/091
- **Iraupena**: 0:04:32. **Hasi**: 01:57:08. **Bukatu**: 02:01:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Berak 78 urterekin idatzitako bertsoak irakurtzen ditu, gerraren kontrakoak, gaur egungo politikari eta langabeziari buruzkoak.

52. Senarrari idatzitako bertsoak

- **Erref**: ONA-112/093
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 02:02:02. **Bukatu**: 02:04:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Senarrari idatzitako bertsoak, hura hiltzean. Kantatu egiten ditu lehenengoak eta azkenak errezitatu.

53. Senarrari idatzitako bertsoak II

- **Erref**: ONA-112/095
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 02:04:24. **Bukatu**: 02:06:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
80 urte bete zituenenean idatzi zituen bertsoak, senarrari zuzenduak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com